ASTE SANTURAKO
LAGUNGARRIA

ERRAMU DOMEKA
BARIKU SANTUA

Meza Liburuko
eta Irakurgaiak liburuko testuen
SEPARATA

LIBROS
LITÚRGICOS
Conferencia Episcopal Española

idatz

MMXX

JAUNAREN NEKALDIKO
ERRAMU DOMEKA

HASIERAKO OHIKUNEAK

1. Egun honetan, Eleizeak, Kristo Jauna bere Pazko-misterioa burutzeko Jerusalemen sartu zanekoa gogoratzen dau. Horregaitik, Meza guztietan egingo da Jaunaren sarrera honen oroitzapena; prozesinoaren nahiz sarrera ospetsuaren bidez egin leiteke oroitzapen hori Meza nagusiaren aurretik, edo sarrera soilaren bidez gainerako Mezen aurretik. Baina eleiztar asko batzen dan beste Meza baten edo besteren aurretik be egin leiteke sarrera ospetsu hori; ez, ostera, prozesinoa.

Prozesinoa edo sarrera ospetsua egiterik ez dagoan lekuetan, komeni da Jesusek Mesias lez egin eban sarrerako eta Jaunaren Nekaldiko Jainkoaren hitzaren ospakizuna egitea, zapatu arratsaldean nahiz domekako ordu egoki baten.

Jaunaren Jerusalemgo sarreraren gomuta

1. era: **Prozesinoa**

2. Ordu egokian, eleiza txikiago baten nahiz beste leku egokiren baten batuko dira eleiztarrak, prozesinoan joan beharreko eleizatik kanpo. Eleiztarrek erramu-adarrak izango dabez eskuetan.

3. Abadea eta diakonoa, Mezarako behar diran jantzi gorriz jantzita, herria batuta dagoan lekura joango dira, beste zerbitzariak lagun dabezala. Abadeak, kasuilaren ordez, eleiz kapa jantzi leike, baina prozesinoaren ondoren kendu egingo dau eleiz kapa hori.

4. Bitartean, hurrengo antifona hau nahiz beste kantu egokiren bat abestuko da.

Antifona

Hosanna Daviden semeari! Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena, Israelgo Erregea! Hosanna Goi-goikoari!

Ik. *Mt* 21, 9

5. Orduan, abadeak eta fededunek aitaren egingo dabe, esanez: Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean. Ondoren, herria agurtuko dau ohitura danez; eta oharpen labur bat egingo dau, eleiztarrek egun honetako ospakizunean ekinez eta jakinaren gainean parte hartu dagien; honan egin leike:

Oharpena

Senide maiteok: Garizumako aldi honetan bihotza prestatzen gabiltz penitentziaz eta maitasun-egintzez. Hurrean dogu Pazko-jaia. Jaunaren pazko-misterioari, hau da, haren nekaldiaren eta biztueraren misterioari, Eleiza osoarekin bat eginik hasiera emoteko ospakizuna egitera batu gara gaur. Misterio hori betetzeko sartu zan Jauna Jerusalemgo uri santuan. Ospatu daigun, beraz, fedez eta maitasunez, gu salbatzeko egin eban sarrera horren gomuta, eta jarraitu deiogun geure Jaunari, grazia lagun dogula haren kurutzean bat eginda, haren biztueran eta bizian ere bat egin daigun.

6. Oharpena egin ondoren, abadeak, eskuak baturik, hurrengo otoitz honeetakoren bat esango dau:

BEDEINKAZINO-OTOITZA

Egin daigun otoitz.

Jainko ahalguztidun betikoa,
bedeinkatu egizuz ✠ erramu-adar honeek;
eta egizu, Kristo Erregeari
goraka eta kantari jarraitzen deutsagunok,
beraren bidez betiko Jerusalemera heldu gaitezala.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

Edo:

Oi Jainko, indartu egizu Zugan uste on dabenen fedea
eta entzun bihotz onez gure otoitzak:
gaur Kristo garailea erramu-adarrakaz goratzen dogunok,
beragaz bat eginik, egintza onen frutuak emon daiguzan.
Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.
R/. Amen.

Eta ur bedeinkatuz erramuak txipriztinduko ditu, ezer esan barik.

7. Ondoren, diakonoak edo, diakonorik ez bada, abadeak berak Jaunaren sarrerako lau Ebanjelioetako bat aldarrikatuko dau. Egoki eretxi ezkero, erabili leiteke intsentsua.

C urtean

EBANJELIOA *Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena!*

✠ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik *Lk* 19, 28-40

ALDI haretan, Jesusek Jerusalemgo bidean gora jarraitu eban danen aurretik. Oliamendi ondoko Betfage eta Betania herritxuetara hurreratu zanean, ikasleetariko bi bialdu zituan, esanez: «Zoaze aurreko herritxu horretara; sartzean, astokume bat aurkituko dozue loturik, gainean inoiz inor jarri ez jakona; askatu eta ekarri. Eta inork zergaitik askatzen dozuen itaunduko baleutsue, erantzun: ”Jaunak behar dau”».

Joan ziran, bada, bialdutakoak, eta Jesusek esan bezala aurkitu eben. Astokumea askatzen ebiltzala, jabeek esan eutsien: «Zer zabiltze astokumea askatzen?» Eta hareek erantzun: «Jaunak behar dau».

Jesusi ekarri eutsoen eta, euren jantziak astokumeari bizkarrean ipinirik, gainean jesarriazo eben. Aurrera egin ahala, jenteak euren jantziak zabaltzen eutsozan bidean. Oliamenditik beherantza hartzera joiala, ikasletalde handia, pozez beterik, Jainkoa indartsu goratzen hasi zan, ikusi ebezan mirari guztiakaitik:

«Bedeinkatua Jaunaren izenean datorren erregea!
Bakea zerutik eta aintza Jainkoari!»

Jente arteko fariseu batzuk esan eutsoen Jesusi: «Maixu, egiezu errieta ikasleei!» Harek erantzun eutsen: «Hara zer dinotsuedan: honeek isilduko balira, harriek egingo leukie deadar».

Jaunak esana!

8. Ebanjelioa aldarrikatu ondoren, homilia labur bat egin leiteke. Prozesinoari hasiera emon aurretik, abadeak nahiz diakonoak nahiz beste laguntzaile laiko batek oharpena egin leike, honan:

Jesus goratu eban jentearen antzera, lagun egin deiogun geuk be Jaunari bakean eta pozez kantari.

Edo:

V/. Goazen bakean.

R/. Kristoren izenean. Amen.

9. Eta prozesinoa hasiko da Mezea emon behar dan eleizarako bidean. Aurretik intsentsularia joango da, intsentsurik erabiltzen bada, ontzia ketan dauala; ondoren, kurutzeduna, tokian tokiko ohituren arabera kurutzea erramu-orriz apainduta daroala eta argizari biztuak daroezan laguntzaile biren erdian. Gero diakonoa, Ebanjelio-liburua daroala, abadea bere laguntzaileekin eta, atzetik, fededun guztiak, erramu-adarrak eskuetan dabezala.

Prozesino bitartean, abesbatzak eta herriak ondorengo kantu honeek edo beste kantu egokiren batzuk abestuko dabez Kristo Erregearen omenez:

1. antifona

R/. **Hebrearren umetxuak,**
olibondo-adarrak eskuetan ebezala,
bidera urten eutsoen Jaunari, oihuka:
Hosanna zeru-goienetan!

Kristo Erregeari gorazarrea

R/. **Jesu Kristo salbatzaile,**
Zuri gure maitasuna;
Zu zara danon errege,
Zuri aintz*a* eta hosanna.

1. Israeldarren errege zara,
Daviden seme bikaina;
bedeinkatua danen errege
bakegilea zarana. R/.

2. Heriotzara bidean Zuri
«Gora!» eutsuen esaten;
heriotzaren garaile horri
«Gora!» deutsugu kantatzen. R/.

3. Atseginez hartu zenduzan
zeure herriaren oihuak;
apal danaren maitale zara,
onartu gure kantuak. R/.

10. Prozesinoa eleizan sartzean ondorengo itaunerantzun hau abestuko da nahiz Jaunaren sarrera aitatzen dauan beste kantu egokiren bat.

V/. Jauna uri santuan sartzean,
hebrearren umetxuek biztuera iragartzen eben,
erramuak astinduz eta oihuka:
Hosanna zeru-goienetan!

R/. **Hosanna zeru-goienetan!**

V/. Jesus Jerusalemera etorrela jakitean,
bidera urten eutson herriak,
erramuak astinduz eta oihuka:
Hosanna zeru-goienetan! R/.

11. Abadeak, altarara heltzean, gurtu egingo dau eta, egoki eretxi ezkero, intsentsuaz lurrunduko. Gero jesarlekura joango da, eta eleiz kapa, erabili badau, kendu eta kasuilea jantziko dau. Sarrerako beste ohikuneak eta, egoki begitandu ezkero, Erruki, Jauna be itzirik, Mezako otoitza esango dau; eta hortik aurrera Mezea ospatzen jarraituko dau, ohitura danez.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betikoa,
gizon-emakume guztiei apaltasun-bidea erakusteko,
gure Salbatzailea, giza haragia harturik,
kurutzean hiltzea nahi izan zenduan;
egizu, arren, hartu daiguzala gogoan
beraren nekaldiko irakaspenak,
haren biztueran parte izan daigun.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Jaunaren Nekaldiaren kontaera

C urtean

Ebanjelio aurreko txatala Ik. *Flp* 2, 8-9

V/. Kristo gugaitik menpeko egin zan heriotzaraino,
kurutzeko heriotzaraino.

Horregaitik Jainkoak goratu egin eban
eta izen guztien gaineko izena emon eutson.

EBANJELIOA

Nekaldia era laburrean ik. honen ondoren, 14. or.

Kronikariak:

✠ Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Lukasen liburutik *Lk* 22, 14–23, 56

Baneukan gogoa,
sufridu aurretik pazko-afari hau zuekaz egiteko.

ORDUA etorri zanean, Jesus mahaian jarri zan apostoluekin eta esan eutsen:

✠ «Baneukan gogoa, sufridu aurretik pazko-afari hau zuekaz egiteko. Hara zer dinotsuedan: ez dot gehiago Pazkoa ospatuko, berau Jainkoaren erreinuan bere betera heldu arte».

K Eta edalontzi bat hartu, esker oneko otoitza egin eta esan eban:

✠ «Hartu egizue eta banatu zeuon artean. Hara zer dinotsuedan: ez dot gaurtik gehiago ardao honetatik edango, Jainkoaren erreinua heldu arte».

Egizue hau neure oroigarri».

K Gero, ogia hartu eta, esker oneko otoitza eginez, zatitu eta emon eutsen, esanez:

✠ «Hau neure Gorputza da, zuentzat emongo dana. Egizue hau neure oroigarri».

K Afal ondoan gauza berbera egin eban edalontziarekin, esanez:

✠ «Edalontzi hau itun barria da, zuentzat isuriko dan neure Odolaz ezarria.

Gizonaren Semea salduko dauanaren errukarria!

Baina begira, Neugaz mahaian dago salduko nauanaren eskua. Gizonaren Semea badoa, erabagita dagoan bezala; baina, salduko dauanaren errukarria!»

K Ikasleak euren artean itaunka hasi ziran, nor izan ete eitekean hori egingo ebana.

Ni zerbitzari lez nago zuen artean.

➔

Eztabaida sortu zan ikasleen artean, nor ete zan handiena euren artean. Jesusek esan eutsen:

✠ «Herrietako erregeek menpean hartzen ditue euren herriak, eta agintedunek “Ongile” deitzea gura izaten dabe. Zuek ez jokatu holan; zuen artean nagusiena izan bedi gazteenaren pareko, eta agintaria zerbitzariaren pareko. Izan be, nor ete da handiago, mahaian jarrita dagoana ala zerbitzen diharduana? Ez ete da mahaian dagoana? Ba, Ni zerbitzari lez nago zuen artean.

Zuek Neugaz iraun dozue nire probaldietan. Eta Nik erreinua emoten deutsuet, Aitak Neuri emon eustan lez; neure mahaian jango eta edango dozue nire erreinuan, eta tronuetan jesarriko zarie, Israel herriko hamabi leinuak epaitzeko».

Zuk, Nigana bihurtzean, sendotu egizuz zeure senideak.

K Eta esan eban gainera:

✠ «Simon, Simon! Satanasek beretzat nahi zaitue, garia galbahean bezala zuek astintzeko; baina Nik otoitz egin dot zure alde, zure fedea amatatu ez dadin. Eta zuk, Nigana bihurtzean, sendotu egizuz zeure senideak».

K Pedrok esan eutson:

S «Jauna, prest nago Zugaz baita kartzelara eta heriotzara be joateko».

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Hara zer dinotsudan, Pedro: gaur oilarrak ez dau joko, zuk hiru aldiz ukatu arte Ni ezagutzen nozula.

Neugan bete beharrekoa da idatzita dagoana.

K Ostean, guztiei esan eutsen:

✠ «Falta izan zenduen ezer, boltsarik eta zakutorik eta oinetakorik barik bialdu zinduedazanean?»

K Hareek erantzun:

S «Ezer ere ez».

K Jesusek barriro:

✠ «Orain, ostera, boltsa daukanak hartu dagiala eta gauza bera zakutoa daukanak; eta ezpatarik ez daukanak saldu dagiala soingainekoa eta erosi ezpata. Ze, benetan dinotsuet, Neugan bete beharrekoa dala Liburu Santuan

idatzita dagoan hau: “Gaizkileen kidekotzat jo eben”. Izan be, nireak laster egingo dau».

K Hareek esan eutsoen:

S «Jauna, badaukaguz hemen ezpata bi».

K Harek erantzun:

✠ «Nahikoa da!»

Larriaren larriak eraginik,
oraindino gartsuago egiten eban otoitz.

K Urten eban Jesusek eta, ohitura eban lez, Oliamendira joan zan; ikasleek be jarraitu eutsoen. Hara heltzean, Jesusek esan eutsen:

✠ «Egizue otoitz tentaldian ez jausteko».

K Eta hareengandik harrikada bat bide aldenduta, belauniko holantxe egin eban otoitz:

✠ «Aita, gura badozu, urrundu egizu Nigandik edari mingots hau; baina ez bedi egin nire nahia, zeurea baino».

K Honetan, aingeru bat agertu jakon zerutik, adorea emonez. Eta, larriaren larriak eraginik, oraindino gartsuago egiten eban otoitz. Izerdia tantaka erion lurrera, odola baizen lodi. Otoitzetik zutundurik, ikasleakana joan zan; atsekabearen atsekabez, lotan aurkitu zituan, eta esan eutsen:

✠ «Zelan zagoze lo? Jagi eta egin otoitz, tentaldian ez jausteko».

Judas, mosu bategaz saltzen dozu Gizonaren Semea?

K Oraindino berbetan ziharduala, gizataldea agertu zan; Hamabietariko bat, Judas eritxona, etorren euren buru, eta Jesusengana hurreratu zan mosua emotera. Jesusek esan eutson:

✠ «Judas, mosu bategaz saltzen dozu Gizonaren Semea?»

K Gertatzera joiana ikusita, Jesusen inguruan egozanek esan eutsoen:

S «Jauna, erasoko deutsegu ezpataz ala?»

K Eta hareetariko batek abade nagusiaren morroia jo eta eskumako belarria ebagi eutson. Baina Jesusek esan eban:

✠ «Itzi! Nahikoa da!»

K Eta, belarria ikutuz, osatu egin eban. Orduan, beraren aurka etorriak ziran abadeburuei, tenpluko guardiaburuei eta herriko zaharrei esan eutsen:

✠ «Lapur baten bila bezala etorri zarie, ezpata eta makilekin. Egunero zeuekin nintzan tenpluan, eta ez zeunsten eskurik ezarri; baina oraintxe da

➔

zuen ordua, ilunpearen nagusialdia».

Kanpora urtenda, Pedrok negarrari emon eutson saminez beterik.

K Jesus preso hartu eta abade nagusiaren etxera eroan eben. Pedrok urrutitik jarraitu eutson. Batzuk patio erdian sua biztu eta inguruan jesarrita egozan; Pedro be euren artean jesarri zan. Neskame batek, Pedro sutondoan jesarrita ikustean, begira-begira jarri eta esan eutson:

S «Hauxe be Jesusekin ibiltzen zan».

K Baina harek ukatu egin eban:

S «Emakume, nik ez dot ezagutzen hori!»

K Handik lasterrera, beste batek ikusi eta esan eutson:

S «Zeu be horreetarikoa zara».

K Eta Pedrok:

S Ez, gizona! Ni neu ez!»

K Handik ordubetera edo, beste batek gogor inoan:

S «Bai, hauxe be Jesusekin ibiltzen zan, galilearra da-eta».

K Pedrok erantzun eban:

S «Ez dakit zer dinozun be, gizona!»

K Eta une berean, oraindino berbetan zihardualа, oilarrak jo eban. Bihurtu zan Jauna eta Pedrori begiratu eutson. Gogoratu jakon Pedrori Jaunak esanekoa: «Gaur oilarrak jo baino lehen, hiru aldiz ukatuko nozu», eta, kanpora urtenda, negarrari emon eutson saminez beterik.

Igarri egik, profeta: nork jo hau?

Jesus preso eukienek burlaka eta joka erabilien. Begiak estaldurik, itauntzen eutsoen:

S «Igarri egik, profeta: nork jo hau?»

K Eta beste berba iraingarri asko esaten eutsoezan.

Batzar Nagusira eroan eben.

Eguna argitu ebanean, batu ziran herriko Zaharren Kontseilua, abadeburuak eta lege-maisuak eta Jesus Batzar Nagusira eroan eben. Hauxe esan eutsoen:

S «Mesias bazara, esaiguzu».

K Jesusek erantzun:

✠ «Esaten badeutsuet, ez deustazue sinistuko eta, itauntzen badeutsuet

ez deustazue erantzungo. Baina hemendik aurrera, Gizonaren Semea Jainko ahalguztidunaren eskuman jesarrita egongo da».

K Orduan, guztiek esan eben:

S «Beraz, Jainkoaren Semea zara Zu?»

K Harek erantzun eutsen:

✠ «Zeuek dinozue, Neu naz».

K Hareek orduan:

S «Ba ete dogu testigantza beharrizanik? Geuk entzun deutsagu beraren ahotik».

K Jagi ziran danak eta Pilatogana eroan eben Jesus.

Nik neuk ez deutsat errurik aurkitzen gizon honi.

Han Jesus salatzen hasi ziran, esanez:

S «Gure herria nahasten aurkitu dogu hau; enperadoreari zergak ordaintzea galarazoten dau eta bera Mesias, erregea, dala esaten».

K Pilatok itaundu eutson:

S «Judeguen erregea zara Zu?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Zeuk dinozu».

K Pilatok abadeburu eta jente-taldeari esan eutsen:

S «Nik neuk ez deutsat errurik aurkitzen gizon honi».

K Baina hareek, behin eta barriro:

S «Judea guztian zehar herria goikoz behera jartzen dabil bere irakatsiakaz, Galileatik hasi eta honaino».

K Hori entzutean, ha gizona ea galilearra zan itaundu eban Pilatok. Eta, Herodesen menpekoa zala jakin ebanean, harengana bialdu eban, egun hareetan Jerusalemen zan-eta.

Herodesek, bere soldaduakaz batera,
Jesus destainez eta burlaz erabili eban.

Poz-pozik jarri zan Herodes Jesus ikustean, ze, aspalditik eban ha ikusteko gogoa, haretaz entzunak ebazanakaitik; mirariren bat egiten ikusteko itxaropena be baeukan. Herodesek itaun asko egin eutsozan, baina Jesusek ez eutson ezertxu be erantzun. Bitartean, han zihardu en abadeburuak eta lege-maisuak salatu eta salatu. Herodesek, bere soldaduakaz batera, Jesus destainez eta burlaz erabili ostean, soineko

➔

distiratsua jantzi eta Pilatogana bialdu eban barriro. Egun haretan lagun egin ziran Pilato eta Herodes, artean arerio ziran-eta.

Pilatok hareen esku itzi eban Jesus.

Pilatok abadeburuak, agintariak eta herria barriro batu eta esan eutsen:

S «Gizon hau herriaren nahastatzaile lez ekarri deustazue; baina itaunak egin deutsadaz zeuen aurrean eta ez deutsat aurkitu zuek botatzen deutsazuen errurik bat bera be; ezta Herodesek be, ze, geugana bialdu dau ostera. Honek ez dau heriotza merezidu dauanik ezer egin. Beraz, zigorraldi bat emon eta askatu egingo dot».

K Baina guztiek aho batez deadarka esan eutsoen:

S «Kendu hori eta askatu eiguzu Barrabas».

K Urian izandako matxinada eta giza hilketa bategaitik espetxean sartuta eukien Barrabas hori. Jesus askatu nahian, Pilatok barriro egin eutsen berba. Baina hareek deadarka jarraitu eben:

S «Kurutzera hori! Josi kurutzean!»

K Pilatok hirugarren aldiz esan eutsen:

S «Zer oker egin dau, bada, honek? Nik ez dot hau kondenatzeko arrazoirik aurkitzen. Beraz, zigorraldia emon eta askatu egingo dot».

K Baina hareek deadar eta deadar ziharduen kurutzeratu egiala eskatuz, eta gero eta handiagoak ziran deadarrak.

Orduan, Pilatok hareen eskabidearen aurrean makurtzea erabagi eban, eta ha ➔ : eskatzen ebena, matxinada eta hilketagaitik espetxean egoana, askatzea eta Jesus euren esku itzi eban.

Jerusalemgo emakumeok,
ez egin negarrik Nigaitik.

Jesus kurutzean jostera eroiela, solotik etorren bat, Simon Zirenekoa, hartu eben eta kurutzea leporatu eutsoen, Jesusen atzetik eroan egian.

Herriko jente-talde handia joian Jesusen ondorik, baita emakume asko be, bular joka eta beragaitik aieneka. Bihurtu zan Jesus hareengana eta esan eutsen.

✠ «Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik Nigaitik; egizue negar zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik. Hara, badatoz honako hau esango dan egunak: “Zorionekoak agorrak, umerik sortu ez daben sabelak eta hazi ez daben bularrak!” Orduan, holan hasiko dira mendiei esaten: “Jausi

zaiteze geure gainera”, eta tontorrei: “Ezkutatu gagizuez”. Izan be, egur hezeari hau egiten badeutsoe, zer ez ete deutsoe egingo igarrari?»

K Jesusegaz batera, gaizkile bi be eroan zituen hiltzera.

Aita, parkatu eiezu, ez dakie zertan diharduen-eta.

«Buru-hazur» eritxon lekura heldu ziranean, bertan josi eben kurutzean Jesus, baita gaizkile biak be, bata Jesusen eskumaldean eta bestea ezkerrean. Jesusek holantxe inoan:

✠ «Aita, parkatu eiezu, ez dakie zertan diharduen-eta».

K Soldaduek Jesusen jantziak banatu egin zituen, zotz eginez.

Hau judeguen erregea da.

Herria begira egoan. Agintariak, barriz, keinuka ebilkozan, esanez:

S «Besteak salbatu jozak; salbatu dagiala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, bada».

K Soldaduek be burla egiten eutsoen; hurreraturik, ozpina eskeintzen eutsoen, esanez:

S «Judeguen erregea bahaz, salbatu egik heure burua!»

K Gainean idazkun hau eukan: **«HAU JUDEGUEN ERREGEA DA»**.

Gaur Neugaz izango zara paradisuan.

Kurutzetik dindilizka egozan gaizkileetariko bat Jesusi irainka ebilkon:

S «Hi ez haz, ba, Mesias? Salbatu egik heure burua eta salbatu gagizak geu be!»

K Baina besteak agiraka egin eutson, esanez:

S «Zigorra jasoten hagoala be ez deutsak bildurrik Jainkoari ala? Gurea legezkoa dok, ze, geure eginakaitik merezia joaguk; baina honek ez jok ezelako okerrik egin».

K Gero, esan eban:

S «Jesus, gogoratu zaitez nitaz, zeure erreinura heltzean».

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Benetan dinotsut: gaur Neugaz izango zara paradisuan».

Aita, zeure eskuetan izten dot neure espiritua!

➔

K Eguerdi aldea zan, eta ilundu egin eban lurbira osoan hirurak arte. Eguzkia ezkutatu egin zan eta santutegiko oihala erdi-erditik urratu zan. Jesusek deadar handiz esan eban:

✠ «Aita, zeure eskuetan izten dot neure espiritua!»

K Eta hori esanda, azken arnasa emon eban.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu eban, esanez:

S «Benetan be zintzoa zan gizon hau!»

K Ikuskizunera joandako jente guztia, gertatua ikusirik, bular joka bihurtu zan urira. Bertan egozan Jesusen ezagun guztiak, baita Galileatik jarraitu eutsoen emakumeak be, urrutitik dan-dana ikusten.

Hatxean zulatutako hilobian
ezarri eban Josek Jesusen gorpua.

Orduan, kontseiluko kide bat etorri zan, Jose eritxona, gizon on eta zintzoa; honek ez zituan ontzat emon Batzar Nagusiaren erabagia eta jokabidea. Judeako Arimatea herrikoa zan izatez, eta Jainkoaren erregetza noiz etorriko begira egoan. Josek, beraz, Pilatogana aurkeztu eta Jesusen gorpua eskatu eutson. Jesus kurutzetik jatsirik, izara baten batu eban eta hatxean zulatutako eta oraindik beste inor lurperatu bako hilobian ezarri. Pazko-Jairako prestaketak egiteko eguna zan eta zapatua hastera joian.

Galileatik Jesusegaz etorritako emakumeek, Joseren atzetik joanda, ikusi eben hilobia eta begiratu Jesusen gorpua zelan ipintzen eben. Gero, bihurtu eta usain gozoko ukenduak eta mirra prestatu ebezan. Zapatuan atseden hartu eben, aginduta egoan lez.

Jaunak esana.

Nekaldia era laburrean.

Kronikariak:

✠ Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Lukasen liburutik *Lk* 23, 1-49

ALDI haretan, jagi ziran herriko Zaharren Kontseilua, abadeburuak eta lege-maisuak eta Pilatogana eroan eben Jesus.

Nik neuk ez deutsat errurik aurkitzen gizon honi.

Han Jesus salatzen hasi ziran, esanez:

S «Gure herria nahasten aurkitu dogu hau; enperadoreari zergak ordaintzea galarazoten dau eta bera Mesias, erregea, dala esaten».

K Pilatok itaundu eutson:

S «Judeguen erregea zara Zu?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Zeuk dinozu».

K Pilatok abadeburu eta jente-taldeari esan eutsen:

S «Nik neuk ez deutsat errurik aurkitzen gizon honi».

K Baina hareek, behin eta barriro:

S «Judea guztian zehar herria goikoz behera jartzen dabil bere irakatsiakaz, Galileatik hasi eta honaino».

K Hori entzutean, ha gizona ea galilearra zan itaundu eban Pilatok. Eta, Herodesen menpekoa zala jakin ebanean, harengana bialdu eban, egun hareetan Jerusalemen zan-eta.

Herodesek, bere soldaduakaz batera,
Jesus destainez eta burlaz erabili eban.

Poz-pozik jarri zan Herodes Jesus ikustean, ze, aspalditik eban ha ikusteko gogoa, haretaz entzunak ebazanakaitik; mirariren bat egiten ikusteko itxaropena be baeukan. Herodesek itaun asko egin eutsozan, baina Jesusek ez eutson ezertxu be erantzun. Bitartean, han ziharduen abadeburuak eta lege-maisuak salatu eta salatu. Herodesek, bere soldaduakaz batera, Jesus destainez eta burlaz erabili ostean, soineko distiratsua jantzi eta Pilatogana bialdu eban barriro. Egun haretan lagun egin ziran Pilato eta Herodes, artean arerio ziran-eta.

Pilatok hareen esku itzi eban Jesus.

Pilatok abadeburuak, agintariak eta herria barriro batu eta esan eutsen:

S «Gizon hau herriaren nahastatzaile lez ekarri deustazue; baina itaunak egin deutsadaz zeuen aurrean eta ez deutsat aurkitu zuek botatzen deutsazuen errurik bat bera be; ezta Herodesek be, ze, geugana bialdu dau ostera. Honek ez dau heriotza merezidu dauanik ezer egin. Beraz, zigorraldi bat emon eta askatu egingo dot».

K Baina guztiek aho batez deadarka esan eutsoen:

➔

S «Kendu hori eta askatu eiguzu Barrabas».

K Urian izandako matxinada eta giza hilketa bategaitik espetxean sartuta eukien Barrabas hori. Jesus askatu nahian, Pilatok barriro egin eutsen berba. Baina hareek deadarka jarraitu eben:

S «Kurutzera hori! Josi kurutzean!»

K Pilatok hirugarren aldiz esan eutsen:

S «Zer oker egin dau, bada, honek? Nik ez dot hau kondenatzeko arrazoirik aurkitzen. Beraz, zigorraldia emon eta askatu egingo dot».

K Baina hareek deadar eta deadar ziharduen kurutzeratu egiala eskatuz, eta gero eta handiagoak ziran deadarrak.

Orduan, Pilatok hareen eskabidearen aurrean makurtzea erabagi eban, eta hareek eskatzen ebena, matxinada eta hilketagaitik espetxean egoana, askatzea eta Jesus euren esku itzi eban.

Jerusalemgo emakumeok,
ez egin negarrik Nigaitik.

Jesus kurutzean jostera eroiela, solotik etorren bat, Simon Zirenekoa, hartu eben eta kurutzea leporatu eutsoen, Jesusen atzetik eroan egian.

Herriko jente-talde handia joian Jesusen ondorik, baita emakume asko be, bular joka eta beragaitik aieneka. Bihurtu zan Jesus hareengana eta esan eutsen.

✠ «Jerusalemgo emakumeok, ez egin negarrik Nigaitik; egizue negar zeuokaitik eta zeuon seme-alabakaitik. Hara, badatoz honako hau esango dan egunak: “Zorionekoak agorrak, umerik sortu ez daben sabelak eta hazi ez daben bularrak!” Orduan, holan hasiko dira mendiei esaten: “Jausi zaiteze geure gainera”, eta tontorrei: “Ezkutatu gagizuez”. Izan be, egur hezeari hau egiten badeutsoe, zer ez ete deutsoe egingo igarrari?»

K Jesusegaz batera, gaizkile bi be eroan zituen hiltzera.

Aita, parkatu eiezu, ez dakie zertan diharduen-eta.

«Buru-hazur» eritxon lekura heldu ziranean, bertan josi eben kurutzean Jesus, baita gaizkile biak be, bata Jesusen eskumaldean eta bestea ezkerrean. Jesusek holantxe inoan:

✠ «Aita, parkatu eiezu, ez dakie zertan diharduen-eta».

K Soldaduek Jesusen jantziak banatu egin zituen, zotz eginez.

Hau judeguen erregea da.

Herria begira egoan. Agintariak, barriz, keinuka ebilkozan, esanez:

S «Besteak salbatu jozak; salbatu dagiala bere burua, Jainkoaren Mesias, Aukeratua, bada».

K Soldaduek be burla egiten eutsoen; hurreraturik, ozpina eskeintzen eutsoen, esanez:

S «Judeguen erregea bahaz, salbatu egik heure burua!»

K Gainean idazkun hau eukan: **«HAU JUDEGUEN ERREGEA DA»**.

Gaur Neugaz izango zara paradisuan.

Kurutzetik dindilizka egozan gaizkileetariko bat Jesusi irainka ebilkon:

S «Hi ez haz, ba, Mesias? Salbatu egik heure burua eta salbatu gagizak geu be!»

K Baina besteak agiraka egin eutson, esanez:

S «Zigorra jasoten hagoala be ez deutsak bildurrik Jainkoari ala? Gurea legezkoa dok, ze, geure eginakaitik merezia joaguk; baina honek ez jok ezelako okerrik egin».

K Gero, esan eban:

S «Jesus, gogoratu zaitez nitaz, zeure erreinura heltzean».

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Benetan dinotsut: gaur Neugaz izango zara paradisuan».

Aita, zeure eskuetan izten dot neure espiritua!

K Eguerdi aldea zan, eta ilundu egin eban lurbira osoan hirurak arte. Eguzkia ezkutatu egin zan eta santutegiko oihala erdi-erditik urratu zan. Jesusek deadar handiz esan eban:

✠ «Aita, zeure eskuetan izten dot neure espiritua!»

K Eta hori esanda, azken arnasa emon eban.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Erromatar ehuntariak, gertatua ikusirik, Jainkoa goratu eban, esanez:

S «Benetan be zintzoa zan gizon hau!»

K Ikuskizunera joandako jente guztia, gertatua ikusirik, bular joka bihurtu zan urira. Bertan egozan Jesusen ezagun guztiak, baita Galileatik jarraitu eutsoen emakumeak be, urrutitik dan-dana ikusten.

Jaunak esana.

JAUNAREN NEKALDIKO BARIKU SANTUA

Jaunaren Nekaldiaren kontaera

A B C urteetan

Ebanjelio aurreko txatala — Ik. *Flp* 2, 8-9

V/. Kristo gugaitik menpeko egin zan heriotzaraino,
kurutzeko heriotzaraino.
Horregaitik Jainkoak goratu egin eban
eta izen guztien gaineko izena emon eutson.

EBANJELIOA

Jaunaren Nekaldiaren kondaira argimutilik eta intsentsurik gabe aldarrikatuko da, eta liburuari agurrik eta kurutzerik egin barik. Diakonoak aldarrikatuko dau edo, diakonorik ez bada, abadeak berak. Kristau soilek ere aldarrikatu daikie, baina Kristoren hitzak, ahal dala, abadeari itziz.

Irakurleek, diakono diranean, bestela ez, bedeinkapena eskatuko deutsoe abadeari Nekaldia aldarrikatzen hasi aurretik, Ebanjeliorako ohi danez.

Laburdurak, alkarrizketa-moduan irakurri nahi danerako jarri dira: ✠ = Jesus; **K** = Kronikaria; **S** = Sinagoga eta gainerako berba-lagunak.

Kronikariak:

✠ Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldia San Joanen liburutik — *Jn* 18, 1–19, 42

Getsemanin, Jesus preso hartu
eta loturik eroan.

JESUS eta ikasleak Zedron erreka igaro eta beste aldean egoan ortu batera sartu ziran. Judasek be, Jesus salduko ebanak, ezagutzen eban ha lekua, ze, sarritan batu izan zan Jesus han bere ikasleakaz.

Judas, beraz, tenpluko gudari-taldea eta abadeburuak eta fariseuen guardiak harturik, bertara joan zan. Zuzi, argiontzi eta armez horniduta joiazan. Jesusek, ondo ekianez gertatuko jakon guztia, bidera urten eta esan eutsen:

S «Noren bila zatoze?»

K Hareek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Harek orduan:

✠ «Neu naz».

K Han zan guardiakaz batera Judas saltzailea be. Jesusek «Neu naz» esan eutsenean, atzeraka hasi eta lurrera jausi ziran. Barriro itaundu eutsen:

✠ «Noren bila zatoze?»

K Hareek erantzun:

S «Jesus Nazaretarraren bila».

K Eta Jesusek:

✠ «Esan deutsuet Neu nazala. Nire bila bazatoze, itzi honeei joaten».

K Holan bete zan Jesusek berak esandakoa: «Emon deustazuzanetatik ez dot bat be galdu». Orduan, Simon Pedrok, aldean eroian ezpata atara, abade nagusiaren morroia jo eta eskumako belarria ebagi eutson. Morroiak Malko eban izena. Jesusek esan eutson Pedrori:

✠ «Bihurtu ezpata zorrora. Ez ete dot, ba, edan behar Aitak emon deustan kaliza?»

Jesus Anasen etxera eroan eben lehenengo.

K Orduan, gudari-taldeak bere buruzagiagaz eta judegu-agintarien guardiek Jesus preso hartu eta, lotuta, Anasen etxera eroan eben lehenengo; urte haretako abade nagusi Kaifasen aitaginarreba zan Anas hau (Kaifas zan judeguei aholku hau emon eutsena: «Hobe da gizon bat herriagaitik hiltzea»).

Simon Pedro eta beste ikasle bat Jesusen atzetik joan ziran. Beste ikaslea abade nagusiaren ezaguna zan eta, Jesusegaz batera, abade nagusiaren jauregiko patiora sartu zan; Pedro, barriz, kanpoan gelditu zan, ate ondoan. Urten eban orduan abade nagusiaren ezaguna zan ikasleak eta, atezainari berba egin ostean, Pedro barrura sartuazo eban. Atezain egoan neskameak esan eutson Pedrori:

S «Zeu be ez ete zara gizon horren ikasleetarikoa?»

K Pedrok erantzun:

S «Ez, ez naz!»

➔

K Morroiak eta guardiak sua biztu eta berotzen ziharduen, hotz egoalako. Pedro be hareekin egoan, berotzen. Abade nagusiak bere ikasleez eta irakatsiaz itaundu eutson Jesusi. Jesusek erantzun eutson:

✠ «Agiri-agirian berba egin izan deutsat Nik mundu guztiari; sinagogan eta tenpluan irakatsi izan dot beti, judegu guztiak batzen diran lekuan, eta ezer be ez dot ezkutuan esan. Zergaitik itauntzen deustazu Niri? Itaundu nire entzuleei eta emongo deutsue esan dodanaren barri».

K Hori esan ebaneko, han egoan guardia batek matrailekoa emon eutson, esanez:

S «Holan erantzuten deutsazu abade nagusiari?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Txarto berba egin badot, esan zertan; baina ondo egin badot, zergaitik jo nozu?»

K Orduan, Anasek Kaifas abade nagusiagana bialdu eban Jesus lotuta.

«Zeu be ez ete zara horren ikasleetarikoa?
Ez, ez naz!

Bitartean, han egoan Simon Pedro berotzen, eta esan eutsoen:

S «Zeu be ez ete zara horren ikasleetarikoa?»

K Pedrok ukatu egin eban, esanez:

S «Ez, ez naz!»

K Abade nagusiaren morroietariko batek, Pedrok belarria ebagi eutsonaren senideak, esan eutson:

S «Ez ete zaitut, ba, neuk ikusi horregaz ortuan?»

K Ukatu egin eban Pedrok barriro be, eta bat-batean oilarrak jo eban.

Nire erregetza ez da mundu honetakoa.

Kaifasen etxetik Gobernariaren jauregira eroan eben Jesus. Goizaldea zan. Judeguak ez ziran jauregian sartu, euren buruak ez lohitzeko, ze, osterantzean ezin izango eben pazko-afarian parterik hartu. Pilatok kanpora urten eta itaundu eutsen:

S «Zer salakuntza dakarzue gizon honen aurka?»

K Hareek erantzun eutsoen:

S «Gaizkilea ez balitz, ez geunskizun ekarriko».

K Pilatok esan eutsen:

S «Eroan zeuok eta epaitu zeuon legearen arabera».

K Judeguek orduan:

S «Guk ez dogu legezko inor heriotzara kondenatzea».

K Holan beteko zan Jesusek esandakoa, zein heriotzaz hilko zan adierazo ebanean. Pilato jauregira sartu zan barriro eta, Jesusi deiturik, itaundu eutson:

S «Judeguen erregea zara zu?»

K Jesusek erantzun:

✠ «Zuk zeurez itauntzen deustazu hori ala besteek esan deutsue hori Nitaz?»

K Pilatok esan eutson:

S «Judegua ete naz, ba, ni? Zeure herritarrek eta abadeburuek ekarri zaitue nigana. Zer egin dozu?»

K Jesusek erantzun:

✠ «Nire erregetza ez da mundu honetakoa. Nire erregetza mundu honetakoa balitz, nire jenteak burruka egingo leuke, Ni judeguen eskuetan ez jausteko. Nire erregetza, ostera, ez da hemengoa».

K Orduan, Pilatok esan eutson:

S «Beraz, errege zara Zu?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Bai, errege naz, zeuk dinozunez. Honetarako jaio eta etorri naz mundura: egiaren testigantza egiteko. Egiarena danak entzuten dau nire ahotsa».

K Pilatok galdetu eutson:

S «Zer da egia?»

K Hori esanda, barriz be judeguakana urten eta esan eutsen:

S «Nik ez deutsat errurik aurkitzen gizon honi. Baina badozue ohitura bat Pazko-jaietan nik preso bat askatzekoa: gura dozue judeguen erregea askatzea?»

K Hareek, barriz, deadarka:

S «Hori ez! Askatu Barrabas!»

K Barrabas hau bidelapurra zan.

➔

Agur, judeguen errege!

Pilatok, orduan, Jesus zigorkadaz astintzeko agindu eban. Gudariek, arantzazko koroia eginik, buruan ezarri eutsoen eta purpurazko soinekoa bota eutsoen gainera. Eta, inguraturik, esaten eutsoen:

S «Agur, judeguen errege!»

K Eta matrailekoka erabilien. Urten eban barriro be Pilatok eta esan eutsen judeguei:

S «Hara, kanpora dakartsuet, jakin dagizuen ez deutsadala errurik aurkitzen».

K Urten eban, bada, kanpora Jesusek, arantzazko koroia eta purpurazko soinekoa eroiazala. Pilatok esan eutsen:

S «Hona hemen gizona!»

K Abadeburuak eta guardiak, ha ikustean, deadarka hasi ziran:

S « «Kurutzera hori! Josi kurutzean!»

K Pilatok esan eutsen:

S «Eroan zeuok eta josi kurutzean; nik ez deutsat errurik aurkitzen».

K Judeguek erantzun eutsoen:

S «Guk badogu legea, eta lege horren arabera heriotza-zigorra merezidu dau, Jainkoaren Seme egin daualako bere burua».

K Hori entzutean, gehiago bildurtu zan Pilato eta, barriro jauregira sartuta, itaundu eutson Jesusi:

S «Nongoa zara Zu?»

K Jesusek, ostera, ez eutson erantzun be egin. Orduan, Pilatok esan eutson:

S «Ez ete deustazu erantzun behar? Ez dakizu aginpidea dodana Zu askatzeko nahiz kurutzean josteko?»

K Jesusek erantzun eutson:

✠ «Ez zeunke nire gainean ezelako aginpiderik izango, Jainkoak emon ez baleutsu. Horregaitik, traizinoz zure eskuetan ipini nauanak pekatu handiagoa dauka».

Kendu hori, kendu! Josi kurutzean!

K Harrezkero, Jesus askatu guran ebilen Pilato. Baina judeguak deadarka hasi jakozan:

S «Hori askatzen badozu, ez zara enperadorearen adiskide. Bere burua errege egiten dauana enperadorearen aurka dabil».

K Pilatok, berba horreek entzutean, kanpora eroan eban Jesus eta auzitegian jesarri zan, «Harlosatua» eritxon lekuan –hebreeraz «Gabbata»– . Pazko-jairako prestaketa-eguna zan, eguerdi ingurua. Pilatok esan eutsen judeguei:

S «Hona hemen zuen erregea!»

K Orduan, hareek deadarka:

S «Kendu hori, kendu! Josi kurutzean!»

K Eta Pilatok:

S «Kurutzean josi behar ete dot zuen erregea?»

K Abadeburuek erantzun eutsoen:

S «Ez daukagu enperadorea baino beste erregerik».

K Orduan, Pilatok hareen esku itzi eban, kurutzean josi egien.

Kurutzean josi eben, eta haregaz batera beste bi.

Hartu eben, beraz, Jesus, eta honek kurutzea sorbaldan eroiala, «Buru-hazur» –hebreeraz «Golgota»– eritxon lekurantz urten eban. Han josi eben kurutzean, eta beragaz batera beste bi, alde banatan, eta erdian Jesus. Pilatok kartel bat idatzi eta kurutze-buruan ipini eban; hauxe egoan idatzita: **JESUS NAZARETARRA, JUDEGUEN ERREGEA**.

Judegu askok irakurri eban kartela, ze, uritik hur egoan Jesus kurutzean josi eben lekua; gainera, hebreeraz, latinez eta grekoz idatzita egoan. Judeguen abade-buruek esan eutsoen Pilatori:

S «Ez idatzi “Judeguen erregea”, ezpada ze, berak esan ebala: “Judeguen erregea naz”».

K Pilatok erantzun eban:

S «Idatzia, bego idatzita!»

Nire jantziak euren artean banatu zituen.

K Gudariek, Jesus kurutzean josi ostean, haren jantziak hartu eta lau zati egin zituen, bakotxarentzat bat; gero, tunika hartu eben, baina josturarik bakoa, goitik behera ehundua zanez, esan eutsoen alkarri:

S «Ez dagigun urratu; zotz egin dagigun, ea zeinentzat dan».

K Holan bete zan Liburu Santuak dinoana: «Nire jantziak euren artean banatu zituen, eta nire tunika zotzetara egin». Hatan be, horixe egin eben gudariek.

➔

Horra hor zure semea! Horra hor zure ama!

Jesusen kurutzearen ondoan egozan haren ama, bere amaren ahizta, Maria Kleofasena eta Maria Magdalena. Jesusek, bere ama eta, beronen ondoan, maite eban ikaslea ikusirik, esan eutson amari:

✠ «Emakume, horra hor zure semea!»

K Gero, ikasleari esan eutson:

✠ «Horra hor zure ama!»

K Eta harrezkero ikasleak bere etxean hartu eban.

Bete da dana!

Ondoren, Jesusek, dana betea zala jakinik, Liburu Santuak esana guztiz bete zedin, esan eban:

✠ «Egarri naz!»

K Bazan han ozpinez betetako pitxar bat. Orduan, belakia ozpinetan busti eta, kainaberari ertzean erantsiz, ahora hurreratu eutsoen. Ozpina hartu ebanean, Jesusek esan eban:

✠ «Bete da dana!»

K Eta, burua makurtuz, azken arnasa emon eban.

Hemen, belauniko jarri eta egonalditxo bat egingo da.

Odolak eta urak urten eben.

Pazko-jairako prestaketa-eguna zan, eta judeguek ez eben gura zapatuan gorpuak kurutzean gelditzerik, ze, zapatu ha oso jaiegun handia zan. Horregaitik, kurutzeratuei berna-hazurrak apurtu eta handik kentzeko eskatu eutsoen Pilatori. Joan ziran, bada, gudariak eta berna-hazurrak hausi eutsiezan Jesusegaz kurutzean jositako biei; baina, Jesusengana heldu ziranean, ordurako hilda egoala ikusirik, ez eutsoen berna-hazurrik hausi, ezpada ze, gudari batek lantzaz saihetsa zulatu eutson, eta bat-batean odolak eta urak urten eben.

Ikusi ebanak berak autortzen dau eta egiazkoa da haren autormena. Harek badaki egia dinoana, zuok be sinistu dagizuen. Liburu Santuak dinoana bete zedin gertatu zan hau: «Ez deutsoe hazurrik hausiko». Eta beste pasarte baten hauxe dino: «Zulatu ebenari begiratuko deutsoe».

Jesusen gorpua oihal-zerrendaz lotu eben,
tartean usaingarriak ipiniz.

Gero, Arimateako Josek Jesusen gorpua eroateko baimena eskatu eutson Pilatori. Jesusen ikaslea zan Jose, baina isilpean, judeguen bildurrez. Pilatok baimena emon eutson. Harek, orduan, joan eta Jesusen gorpua eroan egin eban.

Etorri zan Nikodemo be –harako behin baten gauez Jesus ikustera joan zan ha– hogeta hamarren bat kiloko mirra eta aloezko nahastura ekarrela. Hartu eben, bada, Jesusen gorpua eta oihal-zerrendaz lotu eben, tartean usaingarriak ipiniz, judeguek hobiratzeko daben ohituraren arabera. Jesus kurutzeratu eben lekutik hurrean, ortu bat egoan, eta ortuan ordura arte inor ipini bako hilobi barria. Hilobia hurrean egoanez, hantxe ipini eben Jesus, judeguen Pazko-eguna hastera joian-eta.

Jaunak esana

Jainkoaren herriaren otoitza

11. Hitzaren liturgia Jainkoaren herriaren otoitzagaz amaituko da. Honan egingo da otoitz hori: diakonoak –diakonorik bada–, edo, ez balego, laguntzaile laikoak, irakurtokian zutunik otoitzaren asmoa agertzen dauan deia egingo dau. Ondoren, guztiek une baten otoitz egingo dabe isilik; gero, abadeak jesarlekuan zutunik edo, egoki eretxi ezkero, altaran, besoak zabalik dituala, otoitza esango dau.

Bitartean, eleiztarrak belaunikaturik nahiz zutunik egongo dira.

12. Abadeak otoitza esan aurretik, tradizinoari jarraituz, diakonoak Belaunikatu gaitezan –Zutundu zaiteze deia egin leike, eta guztiak belaunikatu egingo dira, isilean otoitz egiteko.

Gotzainen batzarrak erabagi leikez beste dei-era batzuk abadearen otoitzaren sarrera modura.

13. Herriaren egoera larriren bat izaten danean, eleizbarrutiko Gotzainak emon leike baimena edo agindua be beste asmo bereziren baten aldeko otoitza sartzeko.

l. Eleiza santuaren alde

Senideok, egin dagigun otoitz Jainkoaren Eleiza santuaren alde: gure Jaun eta Jainkoak bakea, batasuna eta laguntza emon deiola mundu zabalean; guri, barriz, bizimodu baketsua, Jainko Aita ahalguztiduna goresteko.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Kristogan herrialde guztiei agertu deutsezu zeure aintza;
zaindu egizu zeure maitasunaren egintza,
mundu guztian zabaldurik dagoan zure Eleizeak
sinismenean sendo iraun dagian eta zure izena autortu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

2. Aita Santuaren alde

Egin dagigun otoitz I. gure Aita Santuaren alde: gotzain-mailara deitu dauan Jainkoak sendo gorde daiala bere Eleiza santuaren onerako, Jainkoaren herri santua zuzendu daian.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeuk eratzen dituzu diran guztiak zeure jakituriaz;
entzun bihotz onez gure otoitzak
eta gorde egizu maitasunez
guretzat aukeratu dozun Aita Santua,
Zeuk gidatzen dozun kristau-herriak,
artzain honen ardurapean,
aurrera egin dagian sinismenean.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

3. Eleiz zerbitzarien eta maila guztietako kristauen alde

Egin dagigun otoitz I. gure Gotzainaren alde, [I. haren Gotzain Koadjutorearen (edo Laguntzailearen)] eta Eleizako gotzain, presbitero eta diakono guztien alde, baita kristau-herri osoaren alde ere.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Espirituaz santu egiten dozu
eta gidatzen Eleizearen gorputz osoa;
entzun eleiz zerbitzari guztien alde egiten deutsuguzan otoitzak,
zure graziari esker, bakotxa bere eginkizunean
zure zerbitzari zintzo izan dadin.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

4. Kristaugaien alde

Egin daigun otoitz [gure] kristaugaien alde: Jainko gure Jaunak honeen gogo-bihotzak edegi eta bere errukiaren atea zabaldu deien, honeek ere, Bateoko uraren bidez pekatu guztien parkamena harturik, Jesu Kristo gure Jaunaren gorputzeko atal izan daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure Eleizea seme-alaba barriz ugaritzen diharduzu beti;
sendotu egizuz [gure] kristaugaien sinismena eta jakituria,
Bateo-iturriko jaiotza barriaz,
zure seme-alaba ordekoen artean sartu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

5. Kristauen batasunaren alde

Egin daigun otoitz, Kristogan sinisten daben senide guztien alde: egiari jarraitu deioen euren bizitzan eta gure Jaun eta Jainkoak bere Eleiza bakarrean batu eta zaindu dagizan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zure seme-alaba sakabanatuak batzen dituzu,
eta batutakoak zaintzen;
begitu bihotz onez zeure Semearen artaldeko ardiei,

➔

Bateo berak santu egin dituanak
egiazko sinismenak bat egin dagizan
eta maitasun-lokarriak alkartu.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

6. Judeguen alde

Egin daigun otoitz judeguen alde be, Jainko gure Jaunak profeten bidez lehenengo berba egin eutson herriaren alde: haren izen santuaganako maitasunean aurrera egin dagien beti eta haregaz egindako ituna zintzo gorde dagien.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Abrahami eta haren ondorengoei
egin zeuntsezan zeure agintzariak;
entzun errukiz zeure Eleizearen eskariak,
lehenengo aukeratu zenduan herria erospen osora heldu daiten.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

7. Kristogan sinisten ez dabenen alde

Egin dagigun otoitz Kristogan sinisten ez dabenen alde: Espiritu Santuaren argiaz beterik, eurak ere salbazino-bidean sartu daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
emoiezu Kristogan sinisten ez dabenei
zeure aurrean bihotz leialez eta zintzo biziz,
egia osoa ezagutzera heltzea;
guri, barriz, emoiguzu alkar maiteago izatea
eta Zu sakonago ezagutzen ahalegintzea,
zure maitasunaren autorle hobeak izan gaitezan munduan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

8. Jainkoagan sinisten ez dabenen alde

Egin dagigun otoitz Jainkoa ezagutzen ez dabenen alde: euren kontzientziari zintzo jarraituz Jainkoagana heldu daitezan.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
Zeuk egin dituzu gizon-emakume guztiak,
beti zeure bila ibili daitezan
eta, Zu aurkiturik, Zugan atseden izan dagien;
egizu, mundu honetako neke eta estualdietan
danok ikusi dagiezala zure bihotz onaren ezaugarriak
eta zure sinistedunen testigantza,
holan pozik autortu dagien
Zeu zarala egiazko Jainko bakarra eta guztion Aita.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

9. Herri-agintarien alde

Egin dagigun otoitz herri guztietako agintarien alde: gure Jaun eta Jainkoak horreen gogo-bihotzak bere nahiaren arabera gidatu dagizan, danen bakerako eta askatasunerako.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
zeure eskuetan daukazuz
gizon-emakumeen bihotzak eta herrien eskubideak;
begitu begi onez herrietako agintariei,
zure laguntzaz mundu guztian izan daitezan
herrien aurrerapena, bake iraunkorra eta erlijino-askatasuna.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.

10. Atsekabetuen alde

Senideok, egin deiogun otoitz Jainko Aita ahalguztidunari: garbitu dagiala mundua oker guztietatik, uxatu dagizala gatxak, emon deiela ogia gose diranei, askatu dagizala espetxeratuak, hausi kateak, zaindu bidaiariak, etxeratu bidez dabiltzanak, osatu gaixoak eta salbatu dagizala hilzorian dagozanak.

Isilunea otoitzerako. Gero, abadeak:

Jainko ahalguztidun betikoa,
atsekabetuen poza eta nekatuen indarra,
heldu beitez Zugana
edozein estualditan Zuri deiez dagozanen eskariak,
euren preminetan zure errukiaren laguntza lortu izanaz
poztu daitezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.
R/. Amen.